

## **BOLUNTARIOTZA PROIEKTUAK UDA 2020**

### **1. ARGENTINA – San Salvador de Jujuy**

San Salvador de Jujuy-ko Malvinas Argentinas auzoan **heziketa eta pastoral ekintza** ezberdinetan parte hartuko duten boluntarioak.

Lankidetzaz **arlo ezberdin hauetan** eskaini ahal izango da:

1. Oporraldian, neska-mutil eta gazteentzat jolasak eta aktibitate-tailerrak antolatu.
2. “Espacio Joven”, gazte taldeen tailer eta ekintzetan parte hartu.
3. Formazio Zentroan parte hartu: informatika, elektrizitate, energia alternatibo, edertasun... ikastaldi laburrak.
4. Auzoko beste jarduera eta talde ezberdinetan parte hartu: Oinarrizko Eliz Elkarateak (Comunidades Eclesiales de Base = CEBS), aitona-amonen jangela...
5. Gazte atxilotuen Zentroan parte hartu.
6. La Salle kaperako liturgian eta jardueretan parte hartu.

**Parte-hartzaile:** 3 edo 4, 25 urtetik gorakoak.

**Data:** uztailaren hasiera – abuztua (40ren bat egun)



## 2. BOLIVIA – Trinidad – Beni

Zentro ezberdinetan **hezkuntza- eta formazio-jardueretan** parte hartuko duten boluntarioak.

Lankidetzaz arlo ezberdin hauetan eskaini ahal izango da, besteak beste:

1. **Fabian Vaca Chavez eskolan:** Laguntza psikopedagogiakoa haur-eskolan eta lehen hezkuntzan (1.tik 6.era) eta aisialdiko jarduerak.
2. **Adin txikiko mutilen Maná Zentroan:** Laguntza zenbait ikasgaietan eta aisialdiko jarduerak.
3. **Neskentzako Esperantza Harrera Zentroan:** Aisialdiko jarduerak eta eskola-laguntza.
4. **Mocoví kartzelako presoekin:** Formazio jarduerak.

**Parte-hartzaile:** 5 edo 6 pertsona.

**Data:** uztailaren hasiera – abuztua (40ren bat egun)



Ikus iazko esperientziaren kronika esteka honetan:

[http://proyde-proega.org/wp-content/uploads/2019/09/Uda\\_2019-Kronikak.pdf](http://proyde-proega.org/wp-content/uploads/2019/09/Uda_2019-Kronikak.pdf)

## 3. KOLONBIA – Istmina – Chocó

Proiektu berri bat da Proegarentzat.

### Proiektuaren kokapena:

Salletar Anaien Itsminako elkarte txikia Chocó departamenduan kokaturik dago, Kolonbiaren ipar-mendebalean, Andesetako eskualde eta pazifikoaren artean. Departamenduko biztanleriaren gehiengoa Afroa (beltza) da, Indigenak eta mestizoak, gutxiengoa.

Hiriburua Quibdó da. 180.000 biztanle inguru ditu.

Departamendua oso zabala da eta gehiena oihana da ibai askorekin.

Klima oso hezea du eta, ondorioz, tenperatura oso aldakorra, beroa gailenduz. Eskualde hau omen da munduko eskualderik euritsuena.

Itsmina, Chocó departamenduko bigarren hiri garrantzitsuena da. 25.000 biztanle inguru ditu ete Quibdó hiriburutik bi ordotara dago ibilgailuz. Itsmina-tik gertu aurkitzen diren beste bi hiri garrantzitsu dira Pereira, 7 ordotara, eta Medellin, 12 ordotara.





# PROYDE-PROEGA Fundazioa

Apdo 851  
20080 DONOSTIA

Madalena Jauregiberri, 2  
20014 DONOSTIA

Tel: 34.943.456.300  
Fax: 34.943.461.650  
e-mail: proega@lasalle.es

Herrian 6 ikastetxe publiko daude eta pribatu bat (elizbarrutikoa, ikasle gutxi dituena).

Ikastetxe publikoetan 8 milaren bat ikasle dabilta. Ikastetxe hauek beti zabalik daude La Salleri entzuteko eta atea zabaltzen dizkigute eskatu orduko. Beraz, ekintza-eremu ona dugu. Era berean, 15 minutu edo ordu erdira herrixka asko daude inguruan, eskoletan gure presentzia eskatzen dutenak.

Komunitate indigenak bi edo hiru ordotara gelditzen dira, edo gehiagotara, ibaien ertzetan.

Gaur egun gure Elkartean bi Anai gara eta guri dagokigu 19 gaztez osatutako barnetegiaren animazioa. (Anai Martin Figueroa)

Arlo ezberdinetan **hezkuntza- eta formazio-jardueretan** parte hartuko duten boluntarioak

**Boluntarioek eskainiko luketen zerbitzua** elkartearen barnetegian nahiz zonaldean honako hau da, besteak beste:

1. Barnetegiko gazteen akonpainamendua arlo ezberdinetan: ikasketetan, giza, sozial eta salletar arloetan.
2. Udalerriko erakundeetako ikasle eta irakasleekin bizikidetzak. Hitzaldiak eta orientazio pedagogikoa irakasleei.
3. Parrokietan lankidetzak katekesi arloan, familien asanbladak, gazte-taldeak, etab.
4. Urrutiagoko komunitate indigenetako maisuen formazioan laguntasuna eskaini, errekurtsio ekonomikoak edukiz gero.

Bidean beste jarduera ugari sortuko dira, ahal izanez gero erantzuna eman ahal izango zaienak.

**Parte hartzaile:** 3 edo 4 pertsona.

**Data:** uztailaren hasiera – abuztua (40ren bat egun)



## 4. BOLI KOSTA– Abidjan – Akwaba Etxea

**Akwaba Etxeko heziketa-zereginetan** esku hartuko duten boluntarioak Anaien elkartearekin eta Etxeko hezitzaileekin batera.

Lana **arlo hauetan** burutu ahal izango da:

1. Etxeko hezitzaile bat gehiago izanik, presentzia eta hurbiltasuna mutilen artean.
2. Etxeko eta auzoko neska-mutilen jardueretan lankidetzaz: berrikuspen klaseak, kirolak eta jolasak, kultur eta artelan jarduerak...
3. Etxetik kanpo mutilek izango duten kanpaldian parte hartzeko aukera.
4. Etxeko hezitzaileekiko gertutasuna. Hezitzaileei zenbait formazio-tailer eskaintzeko aukera: psikopedagogia, aisialdiko jarduerak...

**Parte hartzaile:** 3 pertsona, 25 urtetik gorakoak.

**Profila:** Hezkuntza-esperientzia duten pertsonak, frantsesez moldatzen direnak, elkartean bizitzeko gai izanik.

**Data:** uztailean (4 astebete).



Ikus iazko esperientziaren kronika esteka honetan:

[http://proyde-proega.org/wp-content/uploads/2019/09/Uda\\_2019-Kronikak.pdf](http://proyde-proega.org/wp-content/uploads/2019/09/Uda_2019-Kronikak.pdf)